

Ondasunei egindako Bestelako Kalteen Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena

Produktua: Seguro BBVA Allianz Todo Riesgo Autopromotor

Produktuaren kontratu aurreko eta kontratuzko informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da.

Zertan datzate mota honetako aseguruek?

Zuri, eraikitzaile edota sustatzaile txiki gisa, zuzenduriko Auto-sustatzaile Hipoteka Maileguari loturiko eta zuzenduriko aseguria da, etxebizitzetara zuzenduriko lanak paira ditzakeen kalteak estaltzera zuzendua, eraikuntza edota zaharberritze-fasean.

Aseguratutako zenbatekoa zure kontratuko Baldintza Berezieta ageri dena izango da.



Zer aseguratzen da?

Etxebizitzetara zuzenduriko lanak edo eraikinak, 8 solairu eta 2 sotokoak.

OINARRIZKO BERMEAK

✓ Lanean eragindako kalteak.

- Lan zibilari eta instalazioei eragiten dieten kalteak estaltzen ditu, lan-eskuaren eta materialen kostuak barne, baita zuzkidurak eta ordezko piezak ere, oraindik jarri ez diren baina dagoeneko obran badaude. Arrisku hauen kalteak ordainduko dira.
- Sutea, leherketa eta tximista erortzea.
- Lapurreta eta besterentzea, baita arrazoi hauek eragindako kalteak ere: inpaktuak, esate baterako hegazkinak erortzea eta ibilgailuen talkak.
- Naturako arriskuak, horiek gertatzea edo bere indarra aurreikusteko modurik ez bada, obra dagoen tokian eta urteko garai horretan.
- Haizea, kazkabarra, elurra eta euria.
- Ekaitzak, urakanak eta zikloia.
- Izoztea eta desioztea.
- Urak gainezka egitea. uholdea eta itsas-enbatak.
- Lurrikarak eta bulkanismoak.
- Lurrak hondoratzea eta jaustea, harriak erortzea eta elur-jausiak.
- Lana gauzatzeari loturiko arriskuak:
 - Diseinu eta lan zuzendaritza akatsek eta gainkargen eragindako kalteak.
 - Obrari eragindako kalteak, materialetan edo lan-esku okerrarengatik.
 - Makinek eragindako kalteak.

✓ Kontratuz kanpoko Erantzukizun Zibila.

Erantzukizun zibila izan dezakezun istripuzko kalteak, aseguratutako obran gertatu badira eta zuzenean haren egikaritzeari lotuta badaude.

✓ Mantentze-epealdi zabala.

Lana amaitu osteko mantentze-epealdia da. Asegurua urte betez luzatuko da, lanak amaitzen diren datatik aurrera. Laneko galera edo kalte oro estaltzen dituzte, baita instalazioetakoak ere:

- Jatorria epealdian izan zuen eraikuntza arrazoi batengatik, kontratuaren arabera kanporatzeko arrazoia ez bada.

- Kontratugileak eragindakoak, lana mantentzeko edo kontserbatzeko lanak gauzatetik eratorriak, beti ere kontratuan salbuetsita ez badaude.
- Erantzukizun zibila jatorria mantentze- edo kontserbazio-lanetan duenera bakarrik mugatuta dago.

AUKERAKO BERMEAK

✓ Aurretik ere bazeuden ondasunetako kalteak.

Lanak hasi aurretik bazeuden ondasunak estaltzen ditu, horiek kaltetzen baditu, eta beti ere kontratuan aitortu badira. Halaber, ordaindu beharreko kalte baten ondoriozko gastuak ere estalita daude:

- Aparteko orduak, gauean edo jai-egunetan egindakoak eta presazko garraioen ondoriozkoak.
- Hondakinak kentzea edota aseguratutako obra eraistea, kalte material baten ondorioz.
- Sutea mozteko edo itzaltzeko edo zabaltzea ekiditeko hartutako beharrezko neurriak.
- Izaera politiko, sozialeko gertaerak, greba, matxinada, komozio zibila.
- Lanak aurreikusitakoa baino denbora gehiago hartzea, kontratuak barne hartzen duen kalte baten ondorioz.

Amortizazio-kuoten ordainketa bermatzen da, kaltearen eraginez lanak geldirik jarraitzen duen bitartean.

✓ Erantzukizun Zibil Patronala.

Erantzukizun zibilen aurrean estaltzen zaitu, laneko istripuen ondorio badira, zuretzat lan egiten duten langileei gertaturikoak. Ondorengo helegiteen aurrean zure defentsaren gastuak barne hartzen ditu, baita funtsik gabeko erreklamazioak sortzen badira ere.

✓ Erantzukizun Zibil Gurutzatua.

Gorputzeko kalteak eta horietatik eratorritakoak estalita daude euren artean edota Asegurudunaz bestelako enpresei edo pertsoneri sor dakizkiekeenak, obraren barrutian ari badira.

Ondasunei egindako Bestelako Kalteen Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena

Produktua: Seguro BBVA Allianz Todo Riesgo Autopromotor



Zer ez dago aseguraturuta?

Hona, laburbilduta, salbuespen nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

- ✗ Akats edo bizio propioak eragindako kalteak eta galerak, edo erabilera-erak edo narriadurak, eguraldiaren eragin normalak edo oxidazioak eragindakoak.
- ✗ Materialetako akatsak zuzentzeko kostuak, diseinuan, planoetan ala lan-eskuan.
- ✗ Kalte eta galera mekanikoak edota elektrikoak, eraikuntza-ekipoak eta makinek paira dezaketena, baita bere osagarriek ere.
- ✗ Eraikuntzako materialak, esate baterako aldamioak, zubi osagarriak, zurgintza- eta entibazio-armadurak, lanabesak, aldi baterako eraikuntzak, mugimendu-endarreko instalazioak eta hornikuntzakoak, gidaritza, drainatze, erregeikoak eta gainerako antzeko ondasunak.
- ✗ Eraikuntzako makineria, esaterako garabiak, hondea-makinak, palak, dragak, hondakinak kentzeko ekipoak eta eraikuntza-material gisa erabilitako beste edozein ibilgailu ere.

- ✗ Isunen edo zigorren ordainketa, baita horiek ez ordaintzearen ondorioak ere.
- ✗ Kontratuz besteko Erantzukizun Zibilak ez ditu barne hartzen eraikina eraisteko lanek eragindako kalteetatik eratorzen diren erreklamazioak.
- ✗ Lapurreta, baita desagertze edo gutxiagotzearen ondoriozko kalte eta galera guztiak ere, bata ala bestea egiaztatzen denean inbentarioa edo aldizkako berrikuspena edo noizean behingoa egitean.
- ✗ Kontratuzko erantzukizuna, hala ulertuta Aseguruaren Kontratu-hartzailearen edo Asegurudunaren gainekoa, edozein kontratuko zehaztapenengatik, idatzia, ahozkoa edo tazitua izan, erantzukizun hori aipatutako kontraturik gabe ere erantzukizuna modu berean eman izango balitz salbu.
- ✗ Ondare erantzukizun zibiletik kanpo geratzen dira aldi berean laneko istripuetarako aseguru batek estali ez dituen istripuengatik aurkeztutako erreklamazioak. Gaixotasun profesionalak eragindako kalte-ordainak eta gastuak.



Ba al dago Estaldurari dagokion murrizketarik?

Hona, laburbilduta, murrizketa nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

- ! Aurrez bazeuden ondasunetako kalteen bermearen gehieneko kalte-ordaina Lanaren %50ekoa izango da.
- ! Lanei eragindako kalteen bermeak honako mugapen hauek izango ditu:
 - Lanaren %15 gehienez *ordu osagarrietan, edo gaueko lanengatik edo jaiegunetan, eta presazko garraioengatik.*
 - Lanaren balioaren %10 gehienez, *Hondakinak kentzean edota aseguraturutako lana eraistean.*
 - Lanaren balioaren %15 gehienez: *Lanak aurreikusitakoa baino denbora gehiago hartzean, kontratuak barne hartzen duen kalte baten ondorioz.*
 - Lanaren balioaren %50 gehienez; *Izaera politiko, sozialeko gertaerak, greba, matxinada, kommozio zibila.*
- ! Edonola ere, konpainiak estaliko duen erantzukizuna ez da 300.506,05 euro baino handiagoa izango.
- ! Biktima bakoitzeko kalte-ordaina, Erantzukizun Patronal eta Gurutzatuan, ezin izango du 60.101,21 EUR gainditu
- ! Lanak eteten badira, berme batzuk edo guztiak bertan behera geratzeko gehieneko epeak ezin izango du 6 hilabete baino handiagoa izan.
- ! Obrari eragindako kalte materialengatik kalte-ordainari kenduko zaizkion zenbatekoak hauek dira:
 - *Oro har:* 150,25 EUR kalte bakoitzeko.
 - *Lapurretan:* Kaltearen %15, gutxienez 300,50 euro.
- ! Kalte materialengatik erreklamazioen erantzukizun zibilarengatik kalte-ordainari kendu beharreko zenbatekoa 300,50 eurokoa izango da, kalte bakoitzeko.
- ! Amortizazio-kuoten ordainketa bermatzen dizute, lanak etenda dirauten artean, epealdi hori hilabete baino luzeagoa bada, lanaren balioaren %15eko gehieneko mugaz.
- ! Kalte bakarra osatzen duela ulertuko da, arrazoi bakar batetik eratorzen diren toki eta denbora berean ematen diren kalte edota galera guztiak.
- ! Lanak kontratuan adierazitako data baino lehen amaitzen badira, mantentze-epealdiaren hasierako eta amaierako datak, estalita egonez gero, aurreratu egingo dira.

Ondasunei egindako Bestelako Kalteen Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena

Produktua: Seguro BBVA Allianz Todo Riesgo Autopromotor



Non nago estalita?

- ✓ Espainian Kontratuan adierazitako lanaren helbidean.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- Asegurua ordaintzea.
- Aseguratutako lanaren balioa behar bezala adieraztea.
- BBVA Allianz Seguros-i ahal bezain laster aseguratutako balioak gora egin duela jakinaraztea, ordainagiri berria ordaintzeko betebeharrak.
- Segurtasun-arauak eta istripuak saihesteko beharrezkoak direnak bete behar dituzu, Araudiek eta gainerako xedapenek ezartzen duten moduan.
- Lan-esku eta material ezin hobeak hautatzea.
- Makinak, ekipoa eta instalazioak egoera onean mantentzea, aldizkako berrikuspenak eginez.
- Ikuskapenen bat egitea beharrezkoa bada, lanetara aske sartzeko modua eman behar diguzu, baita lanari buruzko dokumentazioa ikusteko aukera ere.
- Lana eteten bada, guri jakinaraztea.
- Kalterik gertatzen bada, BBVA Allianz Seguros-i zazpi eguneko epean jakinarazi behar diozu, gehienez, gertatzen denetik, eta haren ondorioak aritzeko eskura daukazun bitarteko guztiak jarri.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Ordainagiri bakarraren kargua aseguruaren datatik aurrera egingo da, bankuko helbideratze bidez.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Kontratuak aldi baterako iraupena du. Bermeak Baldintza Berezietan adierazitako egunean eta orduan sartuko dira indarrean. Azkenean lanaren iraupena hitzartutakoa baino gehiago luzatzen bada, kontratuaren amaierako dataren luzapena eska dezakezu.



Nola amai dezaket kontratua?

Aldi baterako aseguru denez, ez diguzu kontratuaren amaiera eskatu behar, lana bertan adierazitako datan amaitzen bada.